

## Juan San Martin-en hitzak

*EGAN*-en hirugarren aldia aurkeztean, maiz errepikatu duguna berretsiko dugu, edonongo hizkuntza soil gelditzen da bere edukina hornitu ezik. XX. mende hau bukatzera dijoalarik, oraindik sakontasuna eta indarra ezezik, hedapenezko dentsitatearen trinkotasuna ere falta zaio euskal literaturari. Herri literaturaz ez gabilta hain makal, baina belaunaldi bakoitzean gure kulturaren edo mundu zabaleko kulturaren zantzua txertatu beharrean gaude.

Alorrik alor, gairik gai hedatu beharra. Agian, hortarako, idazle adina eragile behar dugu, filosofia eremutik hurbil, ideia berriak erarik egokienean gureganatuz. Nekez ezagutu genezazke besteak, gu geu ezagutu ezik.

1948. urtean sortu zen *EGAN*, literatura aldizkaritzat, elebidun, Euskalerrriaren Adiskideen Elkarteak bere Boletinaren eranskin gisa. Euskal idazlerik urri zen garai hartan, baina luma hartu nahi zuten guziei tokia eskaini zitzaenez, historian lehen aldiz euskarak gaztelera bazterrera bultzarazi zuen, zeren 1953. urtean, euskaraz soilik atera beharra izan bait zuten. Egia esan, ez inor uxatu zutelako, besteei non argitaratu falta ez zitzaielako baizik, eta hauek beste inon argitara ezinagatik.

Baina une berean larrialdia agertu zitzaion, eta orduan sortu berri zen Julio Urkixo Mintegiak eman zion babesak. Beraz, 1954. urtetik, Euskalerrriaren Adiskideen Elkarteak eta Gipuzkoako Diputazioaren Julio Urkixo Mintegia izan ditu aitaponteko, eta orotariko euskal idazleak hornitzaile.

Hara nondik hain apal hasia Detxepareren oparizko bihurtu zen: *Debile principium melior fortuna secuatur*, hiru euskaltzainek, "Asmo berri" arautzat, zuzendaritza beren lepora hartu zutenean.

A. Arrue, A. Irigaray eta K. Mitxelenak, egundoko ondoen zekiten euskara idatziaren beharrez, euskal literaturaren sendotasun beharrez. Berrogei urte datoz laster asmo txalogarriaren jarraipenez. Hogetamar betetzean adierazi nuen, *EGAN*-en atariko batean, bere ibili luze bezain neketsua (ikus *EGAN*, 1984. urteko 2-4 zenbakia). Era berean, aldizkariaren egoera larria salatu nuen. Berria eta berrikeria ondo bereizten genizkien, eta emaitza onaren jabe zen tradizioari eutsi nahi genion. Edonola ere, portu onera eramane nahi genuen ontzia iduritzen zitzaigun Mitxelena eta biori, eta zela-hala aurrera jokatuz jarraitu genuen.

Eutsiak ekarri gaitu hirugarren aldi honetara, azpiegitura ahulez, eta orain nere Arartekotza karguagatik ezinez, baina eraberean hain beharrezko zaion azpiegitura berri bat sortzen denaren pozez, alderdiok alderdi, euskaldunok euskaldungoan bat eginez. Hirugarren aldia hastean, zenbakiaren Aurkezpenak dioen bezala: "laguntza eskaini zioten zenbait sinadurari esker, goraka, hazten zihoan, bai neurri aldetik, bai edukinaren aldetik ere". Hala espero dut jarraipenean ere, ohi bezala, egintzak lekuko direla.

*EGAN*-ek egitura izan du edukiaren eredu. Sarrerakoan, beti, orotariko saio, elkarrizketa, biografia, kritika eta abar, euskal literaturaren edo plastika estetikaren inguruan. *Olerkiak* sailean, gure belaunaldian eman diren poetarik ospetsuenen lanak agertu dira, ondotik beste hizkuntzetatik ere aunitz itzuliak gureak ezagutaraziz.

*Kontu kontari* sailean ordea, ipui eta orotariko kontaerak narratibaz askatasunari emanaz, aldi berean itzulpenei ere zuhur leku emanaz, inork esan ez dezan gure gurean hertsirik gaudela; ez, *EGAN*-ek bere orriak lau haizetara zabaldurik eduki ditu. Bestalde, hainbeste mokofin eta tripazai diren herrian gastronomia gaiak ere beren toki berezia merezi zutela uste zuen norbaitek, eta hortik sortu zen *Jan edanak* deritzon saila. Gainera, edozein aldizkariri hain beharrezko zaion txokoa, ohar, zuzenketa, azalpen edo kritika laburrak egiteko ezarri zitzaion *Adabakiak* deituko zena, era berean aldizkariaren pizgarritzat, bere irakurketa laburrekin. Horien inguruan jarri

zen *zinema* gaiarena aspaldi ahitu zen, eta Nahas-mahas ordea, *Adabakiak* zeritzonak irentsi.

*Liburuak* saila ordea, argitara berri diren liburu nahiz liburuxken berri emate aipamenez, zein edukiaren adierazpen soilez hala kritika-  
ren eremuak urratuz, literaturari buruzko edozein aldizkariri beharrez-  
ko zaion gisara beteaz etorri da *EGAN*. Gainera, sail honetan agurtu  
ditu, bere bizitzan zehar, agertu diren kidekoak, batzuk laster suntsi-  
tuak eta beste batzuk zela-hala beren buruak irauneraziz jarraitzen du-  
tenak.

Azkenik, *Antzerkia*, zenbaki guzietan obra oso bat eskainiz. Aha-  
legin hori, gutik ulertua; zeren zoritxarrez, teatroa egungo literaturan  
modan dagoen edo ez pentsatzen duenik ere badenez gure administra-  
ritzan kultur ekintzen gidari dabilizan horien artean. Aldiz *EGAN*-ek,  
euskarara itzuli diren munduko dramaturgorik hoberenen lanak agertu  
ditu; hemen eman zituen G. Aresti zenak bere antzerki lan guziak, he-  
men aurkitu zuten tokia P. Larzabalen gehienak; baita ere, *EGAN* ho-  
netan gure garaikoek ezezik, han-hemenka galzorian genituen lanetarik  
ugari ere argitaratuz etorri da, joan zen mendekoak zein gure honen  
hastapenetakoak, hemen bertan Xabier Lizardik idatzi zuen antzerki  
lan bakar hura bezala.

Horrez gainera, apaletan edo baul zaharretan ahazturik zeuden es-  
kuizkribuetarik zenbait antzerki eta pastoral. Pastoral hauetarik orain-  
dik aunitz bait da lehengo mendeetatik argitaratu gabe, eta *EGAN*-en  
arduradunok maiz kezkatu gaitu; baina aldizkari honen arduradun izan  
garenok bakarrik dakigu zer nolako lana ematen duen horietariko bat  
eskuizkribuetarik transkribatu eta inprimategi frogak zuzentzera arte.  
Inoiz literaturaren eremuak barna ibili ez direnek ezingo dute ulertu  
lan horren nekea; hizkuntzaren beharrak eraginiko idealak bakarrik  
gainditzen duen lana.

Egitura egoki baten barnean jarraitu den langintza horri esker,  
gaur egun, *EGAN*-ek bere baitan gordetzen du euskal literaturaren al-  
txorrik aberatsena. Eta, emankor jarraituko badu, erabaki jatorra deri-  
tzat Diputazioa eta Jaurlearitza elkaturiko laguntzari, hori litzake orain  
arteko ekintza saritzeko modurik onena, alderdiak alderdi, euskaldu-  
nak euskarari bat egin dezagun eta bere edukitzat literatura bizkortzen  
eta indartzen lagundu.

J.S.M.